



# Eguraldiak ez du krosa zapuztu

**EUSKAL  
JAI A'18**  
AZAROK 10,  
LASARTE-ORIA



09.30 **DIANA**

10.00 **EUSKARLDIAREN LORALDIA** etxez etxe bisitak

11.30 **KANTU DANTZA JIRA TXIKIA**

14.30 **HERRI BAZKARIA** Okendo Plazan. Bazkaloste umoretsua Bea Egizabalekin

17.00 **"OKERRA JASOTZEA"** Udane eta Joseba Ostolaza eta Beñat Telleria

Bitartean...

- Haur eta gazteentzako herri kirolak.
- Haurren pilota jokoa.
- Gazteentzako herri-olinpiadak.

18.00 **ERROMERIA** Tirriki Ttarrakaren eskutik, Ixak Arruti eta Jokin Irastorza musikariekin batera

19.30 **TXARANGA, BERTSO ETA PINTXO POTEA** Oaintxe in deu eta Earra bertso eskolarekin

GAUEAN **MUSIKA** kale eta tabernetan

\* Eguraldi txarra eginez gero ekintza nagusiak Loidibarren frontoian egingo dira.



# Lehia bizia eta eguraldi freskoa igande goizean

Aitor Etxeberriak eta Aratz Rodriguezek irabazi dute Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia. Ia 800 pertsonak parte hartu dute herri lasterketan. Patinatzaileetan Nicolas Alonso eta Bego Huertas gailendu dira. Lehen aldiz 30 bat ipar martxalari atera dira

## Txintxarri

Euria eta hotza izan ziren igande goizean Lasarte-Oria, baina ez nahikoak korrika festa zapuzteko. Ia 800 pertsonak parte hartu dute urteroko hitzorduan, eta herriko kaleak jai giroan berotu dituzte. Goi mailako atletak ere erakarri ditu aurtengoan herri lasterketak. Lehia estu baten ostean gailendu da Aitor Etxeberria igeldotarra, 31:43ko denborarekin. Aratz Rodriguezek, ordea, ez du esprintean garaipena jokatu behar izan, bakar bakarrik gurutzatu baitu helmuga 36:46 minututan.

Eguraldi iragarpen txarra emana zuten, baina azkenean errespetatu du klimak, soilik tarteka bota baitu euri zaparradaren bat. Aurrekua dantzatu eta irteera eman aurretik, esaterako.

Edonola ere, errepeidea bustita egoteak baldintzatu du patinatzaileen proba. Irristaka taldeak ezin izan du garaipena eskuratu, Bera-Berako Nicolas Alonso aurreratu baitzaie Tolosaldeko rollerrei; azken zuzenkian esprintean garaitu du Iñaki Zubillaga. Bego Huertasek, aldiz, nagusitasunez irabazi du proba. Igor Otaegi eta Naroa Salsamendi izan dira lehen herritarrik.

Azken rollerra atera eta bost minutura irten dira korrikalariak. Hasiera hasieratik erritmo bizia ezarri dute. Seiko talde bat nabarmendu da lehen kilometroetan: Aitor Etxeberria, Unai Arroyo, Aitor Amilibia, Kamel Ziani, Gonzalo Fuentes eta Raul Gomez Margallo herritarra. Etxeberria bera metro batzuk aldendu da hirugarren kilometroan, baina segituan harrapatu dute. Gomez Margallok ezin izan dio hoberenen erritmoari eutsi, baina gertu jarraitu du buruko taldea. Seigarren helmugaratu da, 32:41eko denboran. Lehenengo herritarra izan da aurtengoa.

## Hasieratik egurrean

Arroyo eta Ziani erritmoa bizitzen saiatu dira, jakitun baitziren Etxeberria haiek baino azkarragoa izango zela azken metroetan. Baina ez dute lortu. Seihun metroren faltan eraso jo du igeldotarrak, eta bakarrik iritsi da helmugara. Iaz hirugarren egin zuen, baina oraingoan txapela eraman du etxera.

Arroyo helmugaratu da bigarren. Iaz ere Michelingo zuzenkian galdu zuen txapela. Edonola ere, pozik azaldu da sari banaketara. "Bigarren eta

laugarren postu batzuk baditut. Taldekideak irabazi du, beraz, kontentu nago. Beste urte batean izan beharko du". Hirugarren Apalategi Kiroletako Aitor Amilibia izan da. Podiumeko hiru koskak zapaldu ditu Donostiako taldeak.


Aratz Rodriguez hondarribiarrak ez du esprinta behar izan. Hasieratik erritmo bizia jarrita, lasterketa buruan nabarmendu da hirugarren kilometroan. Erritmoari eutsi dio, bakar-bakarrik iristeko helmugara. Ane Zabala minutu batera iritsi da, eta Maialen Gurrutzagak lortu du hirugarren postua. Maite Salazar izan da lehen herritarra.

Bestalde, froga moduan ipar martxako 30 bat kide atera dira, bost kilometroko ibilbidea egiteko. Bukaerako metroak korrikalariekin batera egin dituzte, arazorik gabe. Balorazioa egin ostean erabakiko dute hurrengo urtean izen emateak irekitzearen inguruan.

Euskaraldiko hamaikakoak eraman du 1 zenbakidun dortsala; eskertza moduan denak batera sartu dira bukaeran. Lasterketa itxi du eskobak, ohi bezala, baina ez da giroa itzali. Dutzaren ostean hirugarren denbora luzea izan dute korrikalariak.



Aitor Etxeberria, garaipena ospatzen helmugara sartu aurretik. TXINTXARRI



Aratz Rodriguez, besoak altxata helmugaratzen. TXINTXARRI

aldizkariak  
ESKU-ORRIAK  
liburuak  
katalogoak  
AGENDAK  
kartelak  
EGUTEGIAK  
papeleria  
koadernoak  
LOGOTIPOAK

INPRENTA  
offset eta digitala

DISEINU  
GRAFIKOA

DISEINU  
EDITORIALA

**antza**

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · Pab. 1-2  
20160 LASARTE-ORIA  
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus  
www.antza.eus



# "Eskertzekoa da eguraldi honekin jendea egotea"

**ARATZ RODRIGUEZ LASARTE-ORIA BAI! KROSEKO GARAILEA**

Ane Zabala eta Maialen Gurrutxagarekin batera osatu du aurtengo podiuma korrikalariak. Lehen aldiz parte hartu du, eta esperientziaren berri eman dio TXINTXARRI-ri

## Txintxarri

Lehen aldiz parte hartu du Hondarribiko korrikalariak krolean, emaitza ezinhobea lortuta; lehen postua eskuratu du, eta prest da pistako denboraldia hasteko.

## Nola ikusi duzue zure burua lasterketan?

Gustura egin dut lasterketa. Azterketa gisa planteatu dut.

Denboraldi hasieran gaude, eta sentsazio oso onak izan ditut lasterketan.

## Hasieran egin duzu ihes. Erritmo horri eustea erabaki duzu helmugara arte?

Erdi fondista naiz, eta hamar kilometroko lasterketa gutxi egin ditut. Hirugarren kilometroan oso gustura sentitzen

nintzen, eta indarrez eutsi diot. Erritmoa zertxobait lasaitu dut gero, oraindik zazpi kilometro geratzen zirelako aurretik. Erritmoa mantendu dut, eta ondo amaitu dut.

## Ezagutzen al zenuen ibilbidea?

Ez nuen ezagutzen. Lehen aldiz parte hartu dut, baina errepikatuko dut, ziur.



Aratz Rodriguez korrikalaria, txapela jantzita. TXINTXARRI

## Gustatu al zaizu?

Gustatu zait lasterketa, bai. Aldaparen bat ere badauka, baina ez dira gogorak. Eguraldia

kontuan hartuta, giroa ere oso polita izan da. Jende asko egon da animatzen, eta asko eskertzen da.

# "Azkenera arte itxaron dut erasoa jotzeko"

**AITOR ETXEBERRIA LASARTE-ORIA BAI! KROSEKO GARAILEA**

Lasterketa bizia izan da hasieratik. Erritmo aldaketa ugari egin dituzte Arroyok eta Zianik, baina ez dute lortu Etxeberria atzean uztea. Denboraldia prestatzeko proba izan da krosa harentzat

## Txintxarri

Iaz lasterketa ona egin zuen Aitor Etxeberria Igeldoko kirolariak, baina aurtengo emaitza borobildu du, azken 600 metroan erasoa jota.

## Iaz hirugarren postuan amaitu zenuen. Aurten zein estrategiarekin aterata zara?

Proba moduan hartu dut krosa. Azkar ateratzea izan da estrategia. Hasieran alde egin dut, baina aldapan harrapatu egin naute. Hala ere, ohartu naiz beraiek ez zeudela oso eroso, eta ni, egia esan, lasterketa guztian nahiko erraz joan naiz. Erdi fondista naiz, eta azken

600 metroetara arte itxaron dut erasotzeko.

## Bost edo sei korrikalari joan zarete buruan.

Banekien horietatik azkarrena ni nintzela, eta hortik bideratu dut estrategia. Arroyo eta Ziani saiatu dira aldaketak egiten ni atzean uzteko, baina beraiek ere justu



Aitor Etxeberria podiumean TXINTXARRI

samar zihoazela ikusi dut, eta eutsi egin diot lasterketari.

## Datorren urtean bueltatzeko gogoz?

Bai. Garai ona da pistetako 3.000 metroak prestatzeko, eta azterketa gisa oso ondo datorkit kros hau.

**Thailandia**

**IRTEERA 2019ko MAIATZEAN**  
Noaok gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

**NOAOA BIDAIAK**

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

**KIROLARIA ZARA?**

**NORTH TEAM**

**NUTRIZIO DENDA**

- ZURE NEURRIRA PRESTATUTAKO DIETA ETA ENTRENAMENDUA
- DIETETIKA ETA NUTRIZIOAN AHOLKULARITZA
- ESPERIENTZIA ZABALA

@northteam777  
NORTHTEAM

Kale Nagusia 46, Lasarte-Oria Tel: 943 57 93 16 ☎ 688 778 680

# Burua hankak baino azkarrago doanean

Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoien 23. edizioa barrutik bizi du TXINTXARRI aldizkariak: kamiseta jantzi, zapatilak ongi lotu eta hamar kilometroko ibilbidea osatu du Iñigo Gonzalez kazetariak. Asko sufrituta ere, gehiegi agian, esperientzia ederra izan da

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Igande arratsaldean idatzi dut kronika, lasterketa bukatu eta ordu batzuetara, agujetek nire gorputz osoa hartu baino lehen. Badaezpada ere. Zu, irakurle, ostiralean edo asteburuan ariko zara testua irakurtzen: ziur aski, giharretako minak eta kargak oraindik ez zaizkit joan erabat.

Lezioa ondo ikasita nekarren. 1 zenbakidun dortsalarekin atera nintzen iaz, TXINTXARRI aldizkaria ordezkatzeko, eta *Diario Vasco*-ko kazetari Txema Vallesekin batera. Emozioaren emozioz, aurreneko lerroan jartzea erabaki genuen, lasterkari bizkorrenen ondoan. Azkar batean ikusi genuen hori ez zela gure tokia.

Aurten azkeneko lerroetan jarri naiz. Beroketa ariketak egin bitartean, lasterketako taktika erreparatu dut Unai Rebe lagunarekin: mantso aurreneko kilometroetan, hankak erabat berotu arte, eta, bosgarrenetik aurrera egurra eman, ahal izanez gero behintzat.

**Burua, hankak baino bizkorrago** Sarritan azkarrago joaten da burua hankak baino. Hori uste dut nik behintzat. Hirugarren kilometroan gustura ari nintzen, eta ia ohartu gabe erritmoa bizkortu dut. Berehala konturatu



Kosta zait krosa bukatzea. Nire aurpegiak argi erakusten du. TXINTXARRI

naiz erabakia ez dela egokia izan. Bosgarren kilometroko anoa postura iritsi bezain pronto erretiratzearren ideia pasa zait burutik.

Nire gorputzaldiaren analisi azkar bat eginda, horrek zirudien aukerarik zentzuzkoena: hankak kargatuta, arnasestuka, hurrengo kilometroaren kartela noiz ikusiko zain, eta ura edan ezinik ia. Krosa hasi aurreko taktika eta kalkuluek zertarako balio duten. Nirea da errua: hilabete neraman entrenatu gabe. Hautsa zeukaten nire korrika egiteko

zapatilek. Birikek ere bai. Miraririk ez dagoela kirolean.

## Eskerrik asko, Aitor!

Mirariak ez, baina lasterketa segundo batetik bestera erabat aldatu dezaketzen gertaerak bai. Oriako Karmengo Amaren kapera pasa eta berehala, gehiago ezin nuenean, Aitor Otamendirekin egin dut topo. Lagun batekin zihoan, erritmoa markatzen eta animoak ematen. Nire belarrietara ere iritsi dira. "Hartu arnasa lasai, segi lasterka, buruan dago dena". Ez zaizkit berehalakoan

ahaztuko hitz horiek. Azken esaldia batez ere. Burua azkarrago doa, baina zuk apur bat geratzeko esan eta sinesten duzunean jarraitzeko gai zarela, hankek gutxiago pisatzen dute. Eskerrik asko, Aitor!

Korrilari eskarmentudunak emandako aholkuek balio izan didate Hipodromoko bihurgunera arte. Lortu dut gorputzari buelta ematea, eta neraman erritmoa bueltatzea. Baina luzea egin zait Zubietako bidea. Oso. Halere, zortea eduki dut beste behin. Nire lagun Unai freskoago zetorren atzetik. Nigana iritsi arte itxaron dut. Arnasa hartu beharrak uzten zigun neurrian ebaluatu dugu egoera. "Lehertuta nago", esan diot nik. "Behar baino lehenago igo dut erritmoa". Nekatuta zegoen bera ere, baina gai zen animoak emateko: "Segi, zailena egin dugu honezkerok, pare bat kilometro besterik ez zaizkigu falta".

Kutsatu egin nau, eta elkarri animoak ematen jarraitu dugu. Zubietako Alamandegi parean zeuden ikusleek ere lagundu digute. Ez eurek bakarrik: krosa hasi denetik, indar asko eman didate zaleen eta boluntarioen animoek. Izugarria da zenbat laguntzen duten. Gasolina-dosi estra bat eman didate. Batzuetan gehiegi zapaldu dut azeleragailua, hori onartzen dut, baina ez nintzen oso urrutira iritsiko euren oihu eta txalorik gabe. Eskerrik asko zuei ere.

## Beste taktika bat

Lasterketa aurretik egindakoa ez da izan igandeko taktika bakarra. Argazkiak ateratzen ibiltzen naiz ni normalean; kameraren beste aldean egotea tokatu zait krosean. Estrategia bat ibili dut buruan bueltaka:

aurpegi ona jartzen saiatu, irribarre eginez ahal izanez gero, tripa apurtxo bat sartu eta sufrimendu sintomarik ez erakutsi. Horrek ere ez dit funtzionatu. Askoz hobeto ere ez nintzen aterako, dena den.

Zubietako zubia eta Txiki Erdi atzean utzi, eta azken kilometro eta erdian sartu gara. Nahiko nekatuta geunden, baina ahal izanez gero, erritmoa igoko genuela adostu dugu lagunak eta biok. Lasterketa osoan asko sufritu eta gero, ahalik eta azkarren bukatu nahi genuen.

Iritsi gara Geltoki kalera, eta erabaki dut geratzen zitzaizkidan indar apurrak erabiltzea erlojuari segundo batzuk jateko. Helmugara hurbildu bitartean, ikusi dut amaitzear zela 47. minutua. Sinatuko nuen hasi aurretik. 48 behar izan ditut azkenean. Larunbat gaueko arrosa izango zen agian. Ostiraleko kalimotxoek ez zuten lagundu, hori seguru.

Helmuga zeharkatu bezain laster, argazkilariak zain. Ikustekoak izan dira kamerakin nola izoztu dituzten nire neke keinuak. Errua ez da beraiena, noski: zegokidana baino azkarrago egin dut krosa, gehiegi estutu dut gorputza, eta, disimulatzen saiatu arren, nabaritu dut. Merez al du hainbeste sufritzea 50 minututik jaisteko? Bukatu eta berehala baietz uste nuen. Ordu batzuk geroago, ez: lasterketaz gozatzea zen nire helburu nagusia, eta ez dut %100ean bete. Ea datorren urtean lortzen dudana.

**AITOR OTAMENDIREN ANIMOEKIN IRITSI DA INFLEXIO PUNTUA, BOSGARREN KILOMETROAN**

## ETXEZARRETA HARATEGIA

Bertako okela • Urdaitegia • Eramateko janaria

Mila-mila esker laguntzaile eta antolatzaile guztiei egin duzuen lanagatik!

Hipodromo Etorbidea, 2 • Tel. 943 361 379 / 610 441 544 • LASARTE-ORIA

# Bastoiien eta korrikalarien elkarbizitza frogatu dute

Ipar martxako 26 kidek parte hartu dute lehen aldiz Lasarte-Oria Bai! krolean. Froga moduan egin dute, ikusteko ea hurrengo urtean izen emateak irekiko dituzten. Ostadarrek balorazioa egiteko duen arren, itxuraz ongi moldatu dira martxalariak eta korrikalariak

## Txintxarri

Iaz egin zuten lehen aldiz rollerren lasterketa krolean, patinatzaileen eta korrikalarien arteko elkarbizitza arrakastatsua dela ziurtatzean. Aurten froga ipar martxalarietara egokitu zaie, jakiteko ea hurrengo urtean haientzako ere izen emateak irekiko dituzten. Ostadar SKTko arduradunak oraindik ez dira bildu balorazioa egiteko, baina pentsatzekoa da hurrengo krolean ere bastoiekin arituko direla, itxura guztien arabera ondo atera baita esperimendua.

Michelingo zuzenkia zen zonalde gatazkatsuen, martxalariak korrikalarietara bat egiten baitzuten bertan, azken metroak batera egiteko. Junkal Perez Ostadar Ipar Martxako kideak pasarte hori hobetzeko ideia bat du: "Aagian boluntario bat jarri daiteke hor, azaltzeko korrikalarietara eta martxalarietara dagokien errepidearen zatia". Bidea estuagoa den zatian lasterkari batzuk saihestu egin behar izan dituzte oinezkoak. "Baina, oro har, oso ondo atera da esperimendua", baieztatu du Perezek.

Oso gustura aritu dira Ostadar Ipar Martxakoak lasterketan.



Ipar martxalari talde bat, Kale Nagusian. TXINTXARRI

26 izan dira guztira, baina beste hainbat boluntario lanetan ibili dira, txaleko horia jantzita. "Esperientzia oso ona izan da. Jendeak asko animatu gaitu. Kazkabarra bota du tarte batean, baina bestela eguraldi aproposa egiten zuten ibiltzeko".

## Rollerrak

Kanpotik ez dira martxalariak etorri, beste bi lasterketa jokatu baitira egun berean. Batetik, Katxalin Martxa Solidarioa Donostian, eta, bestetik,

lasterketa garrantzitsu bat Burgelun, Araban.

Patinatzaileen lasterketa egonkortzeko urtea behar zuen aurtengo bigarren edizioak, baina eguraldiak ez du asko lagundu. Roller gutxiago atera dira, ziurrenik errepide bustiak uxatuta. Edonola ere, lehia polita izan dute; azken esprintean erabaki da lasterketa. Horrez gain, ez da ezbeharrik izan, eroriko larririk gabe helmugaratu baitira denak.



Boluntarioak, helmugara iristen. TXINTXARRI



Azkenak irten ziren ipar martxalariak, kroseko elastikoa jantzita. TXINTXARRI



Patinatzaileak, irteeran. TXINTXARRI



Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



Carrefour  
express

# Kirolaz gozatzeko, hemezortzigarrenez

## Ehunka gaztetxo Kros Txikian

Lasarte-Oriako krosak badu harrobia. 2001. urtetik gertatzen den bezala, ehunka neska-mutilek parte hartu dute Korrika Festaren hemezortzigarren edizioan. Azkarrago lasterka egin, edo mantsoago, bakar batek ere ez du irribarra galdu. Eredu dira helduentzat, eta herriarentzat. Jarrai dezatela kirolaz eta atletismoaz horrela gozatzeko.



Ehunka gaztetxok parte hartu dute hemezortzigarren Korrika Festan. TXINTXARRI



Ostadar Inklusioa kirol saileko hainbat kirolari ere animatu dira Korrika Festan parte hartzera. Ede

# Uraitz, s.l.

## Igeltseritza Orokorra



• BARRUKO BERRIKUNTZAK

• TEILATU ETA FATXADAK ISOLATZAILAREKIN. VIPEQ F08 (EMULTSIOZ BOTAKO ARTELAZKIA) ETA S.A.T.E. SISTEMA

• GREMIOEN KOORDINAKETA KOSTU GEHIGARRIRIK GABE

• BAINUONTZIAREN ORDEZKAPENA DUTXA EXTRALAUARENGATIK EGUN BAKAR BATEAN

**Telefona**

**693 05 93 92**

**943 56 66 40**

[uraitz@uraitz.com](mailto:uraitz@uraitz.com)  
[www.uraitz.com](http://www.uraitz.com)

**BULEGOA:**  
Geltoki kalea 15, LASARTE-ORIA



erki aritu dira denak. TXINTXARRI



Den-dena eman dute gaztetxoek. TXINTXARRI



Ez dago oztoporik Korrika Festan lasterka egiteko. TXINTXARRI



Infantil mailako lasterkariak bi itzuli eman dituzte. TXINTXARRI



2013an jaiotakoak sei multzotan banatu dituzte antolatzaileek; ume askok eman dute izena Korrika Festan. TXINTXARRI



- Ispiluak
- Beira apaingarriak eta alakatuak
- Merkataritzako instalazioak
- Dutzako pantailak
- Kristaleria oro har



Uistin kalea, 11 (Zubieta Plaza)  
Tel. 943 36 23 52 - M: 607 234 522

20160 LASARTE-ORIA



# MAiTE

---

ESTETIKA ARETOA



*Korrikalari!*  
*Hau da fotodepilazioa egiteko unerik egokiena*

*Prezio berriak fotodepilazioan, zatoz galdetzerara!*

Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

	Ofiziala	Erreala	Km.ko		Ofiziala	Erreala	Km.ko
<b>LASARTE-ORIA BAI! XXIII. KROSA</b>							
Raul Gomez Margallo	00:32:41	00:32:41	03:16	Ander Marcos Ugarte	00:44:42	00:44:31	04:27
Jon Presa Herranz	00:33:44	00:33:44	03:22	Emilio Hernández Gonzalez	00:44:47	00:44:39	04:28
J. L. Delgado Arenales	00:34:36	00:34:36	03:28	Jon Ollokiegi Suberbiola	00:44:52	00:44:40	04:28
David Cordero Martin	00:34:43	00:34:42	03:28	Oscar Calvo Ramos	00:44:55	00:44:23	04:26
Mikel Garcia Muñoz	00:35:58	00:35:55	03:36	Unai Iparragirre Iartzta	00:44:57	00:44:31	04:27
Alex Altuna Egitegi	00:36:15	00:36:10	03:37	Jose Angel Busto Iglesias	00:44:57	00:44:42	04:28
Xabi Carcedo Gonzalez	00:36:39	00:36:37	03:40	Jokin Goenaga Miner	00:45:03	00:44:55	04:30
Marc Bages Bosch	00:36:44	00:36:43	03:40	Carmelo Zarzuelo Botran	00:45:04	00:44:54	04:29
David Garcia Romero	00:37:27	00:37:24	03:44	Asier Urruzola Ugalde	00:45:08	00:44:57	04:30
Jon Altuna Egitegi	00:38:20	00:38:00	03:48	Gorka Aristorena	00:45:08	00:44:58	04:30
Iker Lanchas Rebe	00:38:34	00:38:28	03:51	Jaime Blanco Sanchez	00:45:11	00:44:59	04:30
L. E. Gallego Olmo	00:38:35	00:38:31	03:51	Daniel Perez Grases	00:45:13	00:44:49	04:29
Oscar Gandía Pascual	00:38:56	00:38:43	03:52	Jose Mari Nuñez Lopez	00:45:14	00:45:06	04:31
Pablo Izquierdo Vicente	00:39:05	00:39:03	03:54	Aitor Elizagarate Sagastibelza	00:45:16	00:45:09	04:31
Ander Baile Apaolaza	00:39:13	00:39:11	03:55	Rodrigo Gil	00:45:21	00:45:06	04:31
J. M. Peña Asensio	00:39:17	00:39:14	03:55	Ñiaki Fernandez Moyuelos	00:45:26	00:45:14	04:31
Imanol Arteaga Aizbitarte	00:39:19	00:39:15	03:56	Eduardo Rivas Clemente	00:45:26	00:45:07	04:31
Endika Gartzia Eizagirre	00:39:20	00:39:15	03:56	Iker Eneko Ortega Artola	00:45:26	00:44:58	04:30
Jon Huici Sagastibelza	00:39:20	00:39:16	03:56	Miguel Angel Martin Azcona	00:45:36	00:45:22	04:32
Igor Sevillano Rodríguez	00:39:21	00:39:18	03:56	Fran Toquero	00:45:36	00:44:56	04:30
Alvaro Sañudo Acosta	00:39:23	00:39:16	03:56	Ibai Izagirre Agote	00:45:49	00:45:46	04:35
Joseba Garcia Guereñu	00:39:40	00:39:34	03:57	Mikel Izagirre Aramendi	00:45:51	00:45:47	04:35
Mikel Herrero Giraldo	00:39:54	00:39:42	03:58	Ander Iruondo Azurmendi	00:45:53	00:45:48	04:35
J. M. Marcos Molina	00:40:01	00:39:57	04:00	Peio Fadrique	00:45:55	00:45:43	04:34
Lorena Gil Mateo	00:40:09	00:39:56	04:00	Daniel Valiente Merino	00:45:59	00:45:22	04:32
Leonardo Juárez Araujo	00:40:29	00:40:17	04:02	Cristian Miranda Legorburu	00:46:00	00:45:42	04:34
Guillermo Trombotti Cortejarena	00:40:29	00:40:18	04:02	Aitor Aristondo Aguirre	00:46:00	00:45:48	04:35
Javier De Sosa	00:40:38	00:40:24	04:02	Mikel Olaiz Garmendia	00:46:03	00:45:39	04:34
Julen Goenaga Sarobe	00:40:42	00:40:39	04:04	Luis Miguel Garcia Calleja	00:46:05	00:46:01	04:36
Iraitz Arruabarrena Jauregui	00:40:52	00:40:46	04:05	David Miguel Ortega	00:46:08	00:45:34	04:33
Raul Barrera Daniel	00:40:57	00:40:44	04:04	Mikel Bermejo Felipe	00:46:26	00:45:55	04:36
Alfredo Cidoncha Moreno	00:41:09	00:41:04	04:06	Julen Bermejo Felipe	00:46:27	00:45:55	04:36
Gonzalo Gurruchaga Mongelos	00:41:11	00:41:05	04:06	Gorka Mateo Chinchilla	00:46:42	00:46:32	04:39
Imanol Galarraga Arteaga	00:41:11	00:41:04	04:06	Susana Mateo Chinchilla	00:46:43	00:46:32	04:39
Haitz Mixelena Martikorena	00:41:12	00:41:02	04:06	Oscar Jiménez Simón	00:46:50	00:46:36	04:40
J. I. Elvira Sanchez	00:41:14	00:41:09	04:07	Imanol Carballes	00:46:56	00:46:41	04:40
Toño Perez Rodriguez	00:41:15	00:41:07	04:07	Miguel Granado Nogales	00:46:56	00:46:52	04:41
Julen Altuna Yeregi	00:41:16	00:41:09	04:07	Salvador Tudela Seguer	00:46:57	00:46:48	04:41
Xabier Puertas Berasaluce	00:41:25	00:41:18	04:08	Íñigo Ibarburu Zuriarrain	00:46:58	00:46:47	04:41
Pablo Hernandez Sorondo	00:41:27	00:41:16	04:08	Antonio Ferrera Antonio	00:46:58	00:46:43	04:40
Manex Altolagirre Intxausti	00:41:44	00:41:32	04:09	David Alonso Sarmiento	00:47:00	00:46:45	04:40
Marcos Mayán Das Neves	00:41:47	00:41:39	04:10	Igor Vaquerizo Moreno	00:47:03	00:46:23	04:38
Ekaitz Roig Aldaya	00:41:48	00:41:31	04:09	Ioritz Iparragirre Argandoña	00:47:10	00:46:39	04:40
Markos Bujanda	00:41:48	00:41:40	04:10	Tomax Arruti Aldalur	00:47:18	00:46:53	04:41
Asier Hazas Berasategi	00:41:58	00:41:47	04:11	Aitor Hernando Cobo	00:47:20	00:47:01	04:42
Maite Salazar Badiola	00:42:04	00:41:54	04:11	Antonio Naranjo Rivero	00:47:24	00:46:57	04:42
Igor Azanza Estevez	00:42:37	00:42:25	04:14	Unax Otaegi Garcia	00:47:26	00:47:16	04:44
Carlos Blanco Sanchez	00:42:39	00:42:33	04:15	Eneko Lanchas Rebe	00:47:27	00:47:14	04:43
Ruben Mendez Ramos	00:42:40	00:42:29	04:15	Ekain Carrasco Tellaetxe	00:47:27	00:47:18	04:44
Xabier Arruti Landa	00:42:42	00:42:14	04:13	Manuel Carretero Rosado	00:47:32	00:47:15	04:44
J. P. Artetxe Mendizabal	00:42:48	00:42:28	04:15	Iker Fernandez Roscero	00:47:39	00:47:01	04:42
Iosu Galdos	00:43:06	00:42:56	04:18	Gema Tejero Cano	00:47:41	00:47:39	04:46
Anabel Eleno Agustin	00:43:07	00:43:00	04:18	Josune Liceaga	00:47:53	00:47:37	04:46
Enrique Caño Pelaez	00:43:08	00:42:30	04:15	Ivan Herrero Prieto	00:47:53	00:47:36	04:46
Jon Agirre Azkue	00:43:08	00:42:56	04:18	Patxi Murillo Muñoz	00:47:56	00:47:32	04:45
Asier Olmos Amondarain	00:43:17	00:43:03	04:18	Asier De Jesus Fernandez	00:47:58	00:47:25	04:44
Borja Da Silva Coca	00:43:23	00:43:10	04:19	Aitor Lasa Iraola	00:47:59	00:47:21	04:44
Naiara Hernandez Aranguren	00:43:24	00:43:12	04:19	Ainhoa Mangas Rezabal	00:48:02	00:47:36	04:46
Pablo Muñoz	00:43:28	00:43:17	04:20	Asier Ávila Ruiz	00:48:05	00:47:41	04:46
X.Carbayeda Etxeberria-Berreiarztza	00:43:45	00:43:35	04:22	Ane Bobadilla Garcia	00:48:10	00:47:40	04:46
Íñigo Otaegi Beldarrain	00:43:57	00:43:44	04:22	Izaskun Salazar Badiola	00:48:15	00:48:00	04:48
Mikel Pelaez De Sosa	00:43:57	00:43:55	04:24	Garikoitx Urruzmendi	00:48:18	00:47:47	04:47
Jose Luis Arzallu Silva	00:44:00	00:43:54	04:23	Mikel Korta Albizu	00:48:26	00:48:13	04:49
Carlos Sobejano De La Merced	00:44:05	00:43:38	04:22	Sergio Lucas Fernandez	00:48:28	00:48:13	04:49
Hilario Sobejano Bienzobas	00:44:05	00:43:39	04:22	Ainara Blanco Peralo	00:48:37	00:48:29	04:51
Javier Martinez Urruzola	00:44:06	00:43:54	04:23	Alvaro Resa Garate	00:48:38	00:48:29	04:51
Iurgi Muñoz Pielago	00:44:13	00:44:02	04:24	Txemi Zulaika Gabirondo	00:48:38	00:48:19	04:50
David Mecerreyes Molero	00:44:28	00:44:17	04:26	Íñigo Aranjuelo Amiano	00:48:38	00:48:21	04:50
				Rodol Zorzano Imaña	00:48:39	00:48:20	04:50



## Herritarren sail

Íñigo Gonzalez Sarobe	00:48:39	00:48:00	04:48
Miguel Angel Aguado Diez	00:48:39	00:48:19	04:50
F. Javier Zamora Garcia	00:48:40	00:48:20	04:50
Unai Rebe Igartua	00:48:43	00:48:05	04:48
Ander Bardaji Maiza	00:48:48	00:48:41	04:52
J. M. Sarobe Gabirondo	00:48:51	00:48:34	04:51
Ruben Arnaiz Garcia	00:48:57	00:48:48	04:53
Enrique Gallego Dolon	00:49:01	00:48:52	04:53
Asier Otegi Garcia	00:49:08	00:48:28	04:51
Aitor Landaberea	00:49:17	00:48:56	04:54
Oscar Garcia Clemente	00:49:20	00:48:37	04:52
Cecilia Juarez Araujo	00:49:27	00:49:00	04:54
Adei Zarra Aldaña	00:49:31	00:49:20	04:56
Victor Dominguez Cabrero	00:49:34	00:49:00	04:54
Olatz Arocena Isasa	00:49:37	00:49:17	04:56
Carlos Martinez Pindado	00:49:38	00:49:18	04:56
Maria Ongay Varela	00:49:41	00:48:58	04:54
Yoana Martin Blazquez	00:49:42	00:49:28	04:57
David Martin Blazquez	00:49:43	00:49:29	04:57
Juanjo Martin Gonzalez	00:49:43	00:49:22	04:56
Juan J. Molano Bermejo	00:49:45	00:49:24	04:56
Raul Carret Gallardo	00:49:47	00:49:13	04:55
Martin Leizaola Olarreaga	00:49:52	00:49:41	04:58
Íñaki Mangas Ruiz	00:49:53	00:49:37	04:58
Ivan Mangas Erauncetamurguil	00:49:53	00:49:37	04:58
Íñigo Arrieta Marcos	00:49:56	00:49:35	04:58
Mikel Lasa Lorences	00:49:56	00:49:42	04:58
Patxi Arrieta Valverde	00:49:56	00:49:36	04:58
Ana Bienzobas Garcia	00:49:56	00:49:40	04:58
Maite Toquero Alvarez	00:49:57	00:49:50	04:59
Juanan Centeno Lopez	00:49:58	00:49:50	04:59
Ismael Toribio Barquilla	00:49:58	00:49:35	04:58
Fernando Navarro Castro	00:50:00	00:49:39	04:58
Ruben Esteban Llorente	00:50:00	00:49:34	04:57
Raul Arnanz Diez	00:50:02	00:49:36	04:58
Diego Lucero Valle	00:50:03	00:49:37	04:58
Ainara Olasagasti Etxebeste	00:50:04	00:49:47	04:59
Josue Jimenez Bohoyo	00:50:04	00:49:38	04:58
Julen Garcia Gonzalez	00:50:07	00:49:43	04:58
Aitor Otamendi Lizarazu	00:50:18	00:50:03	05:00
Naiara Mendiluce Erkizia	00:50:19	00:50:02	05:00
Harriet Del Prado Arruti	00:50:26	00:50:24	05:02
Ignacio Pozo Segura	00:50:33	00:50:01	05:00
Cesar Diez Sanchez	00:50:33	00:50:04	05:00
Beatriz Baeza Carabias	00:50:35	00:50:16	05:02
Abel Castillo Garcia	00:50:36	00:50:03	05:00
Diego Elvira Sanchez	00:50:38	00:49:59	05:00
Iker Elorza Esnaola	00:50:38	00:50:00	05:00
Javier Martin	00:50:38	00:50:19	05:02
Jokin Telleria Julian	00:50:38	00:50:12	05:01





# Krosaren bitxikeriak



Txakurra besoetan hartuta iritsi zen helmugara kroseko lasterkari bat. TXINTXARRI



Realeko eta Athleticeko zaleak ere ikusi ahal izan dira krosean korrika. TXINTXARRI



Euskaraldiko kideek lasterketako azken kilometroa elkarrekin egin dute. TXINTXARRI



Urtero moduan presoan aldeko aldarria egin dute herritarrek krosean. TXINTXARRI

Argazki eta bideo gehiago ikusteko aukera dago [txintxarri.eus](http://txintxarri.eus) atarian

TABERNA  
**Buenetxea**  
KAFETEGIA



Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria  
Tel. 943 36 95 08

- **PRIMERAKO GOSARIAK:**  
Kafea, zukuak, tostadak, opilak
- **TXOKOLATEA TXURROEKIN**
- **SALDA**
- **RAZIOAK**
- **PINTXOAK**
- Eta astebukaeran ere:**
- **OGITARTEKOAK**
- **HANBURGESAK**
- **SANDWICH-AK**



ZATOK GURE GOSARI ETA  
PINTXOAK DASTAZERA!!

# Maite **B**ETELU



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 48 86 • [www.mbetelu.com](http://www.mbetelu.com)

# LUIS CAR

## autobusak

*Lasarte-Oria Bai!*  
Zorionak Korrikalari guztiei!

- Espainiako eta nazioarteko garraio zerbitzuak
- Enpresentzako, ikastetxeentzako... zerbitzuak
- 15 plazako mikrobusak
- 55 plazako autobusak
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autobusak

Uzturre plaza 1, LASARTE-ORIA • Tel./Faxa: 943 36 63 16 • Mugikorra: 629 461 897 • [luisarbus@hotmail.com](mailto:luisarbus@hotmail.com)

# "PSE-EEren ordenantza fiskalak" onartu dira

Funcasen aurrikuspenaren arabera, %1,5 igoko dira hainbat tasa. 5. edukiontziko erabiltzaileek %20ko hobaria izango dute, betiere, baldintza batzuk betetzen badira. EAJ, PP eta AI Du Lasarte-Oria abstenitu dira, eta EH Bilduk aurka bozkatu du

## Txintxarri

2019. urteko ordenantza fiskalak onartu dituzte asteazkenean egindako ez ohiko udalbatzarrean. Horien bitartez, udal zerga eta tasek %1,5eko igoera izango dute. Funcas-ek abuztuan egindako aurreikuspenen oinarritu da Gobernu taldea.

Salbuespen izango dira, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga, ekonomia-jardueren gaineko zerga, estolderia tasa, Manuel Lekuona kultur etxeko sarrerak eta Kontentu eguneko zerbitzua. Tasa eta zerga horiek izoztu dira.

Igoera handiena zaborren tasan dago: %5. Gobernuaren hitzetan, zerbitzuaren estaldura kontuan izan da hori zehazterakoan.

Ordenantzetako berrikuntza handiena da 5. edukiontziko erabiltzaileek %20eko hobaria jasango dutela, betiere baldintza batzuk betetzen badira.

Lehenik, udalak zehaztutako birziklapen kopurura iritsi beharko da Lasarte-Oria: 2018an %46; 2019an %48; eta 2020an %50. Hori lortuz gero, urtean zehar 40 aldiz edo hilabetean lau aldiz organikoaren edukiontzia erabiltzen duten herritarrek jasoko dute hobaria. Beherapena hurrengo urteko



PSE-EEK bakarrik bozkatu du ordenantza fiskalen alde. TXINTXARRI

zergan egingo zaie. "Herria kontzientziatzeko neurria da. Horretarako, bilketaren tasaren berri emango zaie herritarrei 5. edukiontziko poltsen makinaren ondoko panelean".

Kiroldegiko abonamendua, berriz, %2 igoko da. Etxebizitzaren gainbalioak ere %3,93ko igoera izango du.

Moldaketa bat ere badago: etxeko aguntza zerbitzua. Egun bi tarifa daude (egunekoa eta jai egunetakoa), eta berri bat ezarriko da (gauekoa). Gainera, eguneko tarifa orduko %6,98 eta jai egunetakoa, berriz, %12,66 jaitsiko da.

Bestetik, Aterpearekin adostuta, herriko komertzioek kaleko erabileraren tasa ordaindu beharko dute, haien produktuak kalean jartzen badituzte. Salbuetsita geratzen dira

ornamenduzko elementuak, horiek jartzeko baimena badute.

Udalbatzarrean hamabi emendakin egon dira mahaigainean, EAJk bi emendakini uko egin ostean. EH Bilduk ordenantzak izoztea eskatu du, baina ez hori ezta oposizioko alderdien beste emendakinik ere ez da aurrera atera. Azken orduan txertatutako Aterpearekin landutako emendakina izan da onartu den bakarra, PSE-EE, EAJ eta ADLOP alderdiei esker.

EAJ eta EH Bildu bat etorri dira haien bozkaren azalpena egiterakoan: "Ez da inolako lanketarik egon alderdiekin, eta hainbat gaik lanketa berezia behar dute". EAJk eskatu du zerga eta tasen berrikuspene eta sistema berritzea. EH Bilduren hitzetan, "PSE-ren ordenantzak onartu dira".

## Ekitaldi berezi ugari izango dira azaroko kultura agendan

Berrikuntza modura, itsasoari buruzko zine zikloa eskainiko dute azaroaren 15etik 17ra

### Txintxarri

Ohikoak diren XV. Lasarte-Oriako akordeoi jaialdia, Literatur lehiaketako sari banaketa, Santa Zezilia eguneko kalejira edo Azaroaren 25aren barruko ekintzak nabarmenduko dira azaroko kultur agendan, baita itsasoari buruzko zine ziklo berria ere.

Okendo Zinema Taldearen eskutik, azaroaren 15tik 17ra, itsasoa eta gizarte egoera uztartzen dituzten film eta dokumentalak ikusi ahalko dira, eta horien egile edo ekoizleekin hitz egiteko aukera izango da.

Bestalde, bisita berezia izango dute taldeko kideek zine forum atalean: Fermin Muguruza.

Azaroaren 30ean, *Black is beltza* filma aurkeztuko du.

*Aida* operaren bertsio berezia ere eskainiko dute azaroaren 14an. 1985ean, Pavarotti protagonista zela, La Scala De Milanen grabatutako ikuskizuna izango da ikusgai proiektzio digitalen atalean.

Etxeko txikiek, berriz, Gorakada antzerki taldearen *Ulisesen bidai*a haurrentzako antzerki gozatu ahalko dute azaroaren 24an.

Hori guztiaz gain, Zurmailu zur-lanketa elkarte kideen lanak ikusteko aukera ere izango da, azaroaren 9tik 18ra, Mercero aretoan.



TXINTXARRI

## Euri azpian egin dute Halloween

Eguraldiak ez du gehiegi lagundu asteazken arratsaldeko Halloween festan, baina lasarteoriatarak ez dira etxean geratu. Mozorroak jantzi eta Atsobakar auzora gerturatu dira. Stratford Ingles Akademiak antolatutako *Trick or treat*-ean ibili dira, eta goxokiz bete dituzte sakelak. Musikarekin dantzan aritzeko aukera ere aprobetxatu dute, eta photocallean ere argazki beldurgarriak atera dituzte.

**kima** masaje-lekua

Goyo Martin  
Xabier Carbayeda

Errepideko, BTT eta triatloiko txirrindulariaren biomekanika

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 36 61 97  
LASARTE-ORIA

**LABORATEGI EROA**

Esperimentuak: Natura, koloreak, argia,...

HH5-LH1-LH2 (2011., 2012. ETA 2013. JAIOTAKOENTZAT)

**ASTELEHENETAN, 17:30 ETATIK 19:00 AK ARTE**

AZAROAK 12, 19, 26 ETA ABENDUAK 3 ETA 10

**ASTEARTEETAN, 18:00 ETIK 19:30 AK ARTE**

AZAROAK 13, 20, 27 ETA ABENDUAK 4 ETA 11

MATRIKULA: 14€ TTAKUNEKO BAZKIDEAK  
17€ EZ BAZKIDEAK

Izena emateko:  
Geltoki kalea 4, behea  
aisia@ttakun.eus  
695 785 392

LASARTE-ORIA

TTAKUN

@TtakunKE

# Puntuz puntu herriko balkoiak loratzeko deia

'Euskaraldiaren loraldia Lasarte-Orian' egingo dute azaroaren 10ean, etxez etxe ekimena azaltzeko eta balkoian koloretako puntua jartzeko gonbita egiteko. Alderdiak babesa eman, eta 'ahobizi' eta 'belarriprest'-ak sustatzeko konpromisoa hartu dute

## Txintxarri

Hilabete baino gutxiago falta da Euskaraldia hasteko, eta dagoeneko sartu dira antolatzaileak azken txanpan. Udal ordezkariak beste bultzada bat eman diote ekimenari; udalbatzarrean ordezkariak duten alderdi ia guztiek talde argazkia atera dute. Horrez gainera, *Euskaraldiaren loraldia Lasarte-Orian* "ekintza berritzailea" aurkeztu dute: azaroaren 10ean etxez etxe bisitak egingo dituzte, Euskaraldia zer den azaltzeko eta izen emateak lortzeko.

Jesus Zaballos alkateak (PSE-EE) eta Jon Antxordoki Euskara



Politikariak eta herritarrak, puntua eskuetan. TXINTXARRI

Batzordeko buruak (EAJ) zuzendu zuten ekitaldia astearte arratsaldean. Ondoan izan dira Leire Elizegi (EH Bildu) eta Arkaitz Naya (Podemos). PPko ordezkariak ez da agertu, nahiz eta udalbatzarrean babesa eman ari.

## Etxez etxe

Hain zuzen, urriaren 9ko batzar hura gogora ekarri du Zaballosek; orduan aho batez onartu zuten Euskaraldia babestea. Gainera, alkateak hitzeman du udal barruan zein kanpoan ahalik eta *ahobizi* eta *belarriprest* gehien lortzeko lan egingo dutela.

Izen emateak lortu bakarrik ez, herria puntuz koloreztatu nahi dute Lasarte-Oriako Euskaraldiko antolatzaileak. Horretarako, herritar guztietara iritsi nahi dute. *Euskaraldiaren loraldia Lasarte-Orian* ekimenean egingo dute hori; azaroaren 10ean, 10:00etatik 13:30era, etxez etxe joango dira bisitak egiten. Dagokion bandoa jarriko du udalak portal bakoitzean.

Larunbat horretan boluntarioak etxe guztietara helduko dira, eta Euskaraldia zer den azaltzeaz

gainera, euskaraz ulertzen dutenei *belarriprest* izatera ere animatuko diete. Baina guztiei, euskara ulertu edo ez, koloretako puntu bat emango diete, balkoian jar dezaten. "Lasarte-Oriari kolorea emango dio", esan du Zaballosek. 200 boluntario beharko dituzte horretarako.

Dagoeneko 1.300 pertsonak izen eman dute Lasarte-Orian, gehienak *ahobizi* moduan. Baina erabiltzaile gehiagorekin hizkuntza ohiturak are eta astinaldi handiagoa izan du.

Berezia izango da Euskaraldia herrian, arrazoi askorengatik. Horietako batzuk oroitarazi ditu Antxordokik: "Orain bi urte Euskararen 9. Maratoian azaldu ziren *ahobizi* eta *belarriprest* figurak. Gure herriko plazan jaio zena Euskal Herri osora hedatu da". Orain bi urteko elkarlana goraiatu du Euskara Zerbitzuko buruak: "Maratoiaren arrakasta, neurri handi batean, denon artean egin izana da; horregatik, orain ere egin nahi da denon artean. Alderdi politiko guztien artean, baina baita ere herriko elkarte guztien artean".

## KONTZERTUA "GALERAK DISKAREN AURRERAPENA"

azarok 10, LARUNBATA, 22:00 Sutegi SARRERAK\*

## BISITA GIDATUA "HARRIA HITZ"

azarok 11, IGANDEA, 10:00 Frontoitik DOAN

## PELIKULA "BLACK IS BELTZA" FERMIN MUGURUZAren

aurkezpena, azarok 11, IGANDEA, 19:00 Sutegi SARRERAK\*

## SOLASALDIA "Antton eta Julen Telleria eta Aitziber Garmendia"

azarok 14, ASTEZKENA, 19:30 Sutegi DOAN

## ANTZERKIA "Euskaraldirako 4 aitzakia: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi"

azarok 16, OSTIRALA, 19:30 Sutegi SARRERAK\*

## KANTU-BERTSO-BAZKARI-JIRA "Agin Laburu eta Aitor Sarriegi

bertsolariekin", azarok 17, LARUNBATA, 12:00 Mikel Laboa plazatik BAZKARI-TXARTELA\*

## PELIKULA "OREINA"

azarok 17, LARUNBATA, 19:00 Sutegi SARRERAK\*

## KONTZERTUA "EME TALDEA"

azarok 18, IGANDEA, 19:00 Sutegi SARRERAK\*



# NOAUA/KO KULTURALDIA 2018

USURBIL  
AZAROA



\*SARRERAK: Aldez aurretik Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaualko egoitzan. Noaualko bazkideek prezio berezian Noaualko egoitzan aldez aurretik. \*BAZKARI-TXARTELA: Patri jatetxean salgai soilik.

## ZORION AGURRAK

**Maite eta Manolo**

Muxu handi-handi bat nire guraso maitagarrirei haien ezkontzako 46. urteurrenean. Ondo pasa dezazuela.

**Malen**

Zorionak eta primeran pasa ezazu! Segi horrelaxe. Familiakoen partetik.

## AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA****ALOKAIRUAN EMAN**

Loidibarren parkinean, BMn, 17 metro karratuko garajea alokatzen du. Telefonoa: 648 200 811.

Garaje marra alokatzen dut Atsokabarren. Sarrera erraza du eta handia. Telefonoa: 943 36 54 76.

Etxebizitza alokatzen dut Zapategi kalean. 86 metro koadro dauzka, hiru logela eta bi komun. Telefonos: 636 58 54 78.

**ALOKAIRUAN HARTU**

Etxebizitza alokatuko nuke. Txikia balitz ere ongi letorkidake, bakarrik bizitzeko baita. Telefonoa: 677406223.

**LANA****ESKAINITZA**

Lasarte-Oriako ileapain-degi baterako pertsona

baten bila gabiltza. 615781116.

**ESKARIA**

Arratsaldeetan eta asteburuetan haurrak edota helduak zainduko nituzke. 675 83 02 06

Pertsona eskaintzen da etxeko lanak, garbiketa lanak, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko. 602 119 208.

Pertsona eskaintzen da etxean edo ospitalean pertsona adinduen zainitza egiteko, baita gaueetan ere. 632 198 705.

Goizetan lan egiteko pertsona arduratsua eskaintzen da, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 673 381 470

Pertsona zaharrak zaintzeko eskaintzen naiz. Externa bezala, orduka, gaueetan

ospitalaetan, asteburuetan. Telefonoa: 943 40 40 15/ 606 66 10 48.

Pertsona zaharrak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan, ospitaleetan edota interna moduan. Telefonoa: 722 43 79 55/ 627 20 61 20.

**SALEROSKETA****SALDU**

PIAGGIO ZIP 50 2T motoa salgai, oso modu onean. Segurua eta IVa pasata. Harremanetarako: 610 953 258.

**BESTELAKOA**

8 urteko ume batek gitarra eta batera bat hartuko lituzke. 943 362 614.

## JAIOTAKOAK

**Leire Gomez Manzano.** Urriaren 18an.

## HILDAKOAK

**Iñaki Carrasquedo Munarriz.** Urriaren 30an.

**Rosi Orella Erviti.** Urriaren 28an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 2 DE MIGUEL  
Larunbata, 3 URBISTONDO  
Igandea, 4 URBISTONDO  
Astlehena, 5 GANDARIAS-URIBE  
Asteartea, 6 ORUE  
Asteazkena, 7 URBISTONDO  
Osteguna, 8 LASA

**EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00**

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

**GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00**

Castilla-Larburu: Urbieta kalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## TELEFONOAK

**UDALAREN TELEFONOAK:**

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTERI AEK: 943 372 863

**LARRIALDIKO TELEFONOAK:**

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINZAK: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## OHARRAK

**San Silvestre lasterketa**

San Silvestre Lasarte-Oria 2018rako prestaketa-lanak hasi dira. Hurrengo bilera azaroaren 5ean izango da, 19:30ean, Maialen Chourraut kiroldegan.

Iaz, lasterketako hainbat esparrutan lagundu zuten 70 boluntario baino gehiagok. "Zereginik sinpleena beharrezkoa eta garrantzitsua delako eta gutako bakoitzaren ekarpena ezinbestekoa delako," antolatzaile taldeak herritar oro gonbidatzen du 2018ko SSLOaren prestaketa-lanetan parte hartzera.

**Udal liburutegia itxia**

Domu eguneko zubia dela eta, azaroaren 2 eta 3an, Udal liburutegia itxia egongo da.

**Biyak Bat elkarteak**

Biyak Bat elkarteak zenbait ohar jakinarazi nahi ditu. Batetik, bazkideek gabonetako loteria erosteko aukera izango dute azaroaren 5etik aurrera. Horretarako bazkide txartela erakutea ezinbestekoa izango da. Bestetik, azaroaren 8an etxeko lapurreta eta hirugarren adinekoei gertatutako iruzurren inguruko hitzaldi bat egingo dute ertzaintzarekin. 19:00etan izango da, egoitzan bertan.

## ZUZENKETA

Aurreko zenbakian, 1438.eko zortzigarren orrian, TXINTXARRI-n adierazi zen Fede Otaegi zela Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiko aldi guztietan parte hartu duen pertsona bakarra. Baina ez da horrela. Gutxienez Txetxu Mertxan korrikalariak ere 23 aldiz osatu du herri lasterketa.

txintxarri

www.txintxarri.eus

**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Administrataria**

Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**

Nerea Eizaguirre, Inigo Gonzalez,  
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

**Publizitatea**

Iratzi Zatarain.

**Laguntzaileak**

Unai Muñoa, Gorka Laso,  
Mailu Arruti, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexu Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura eta Aizpea Amas.

**Banatzaleak**

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,  
Naiara Goikoetxea.

**Informatikoa**

Beñat Gonzalez

**PUBLIZITATEA**

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**

Ttakun Kultur Elkarteak  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94

**ISSN:** 1134-0053

**Tirada:** 8.000 ale

BABESLEA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



LASARTE-ORIA  
UDALA



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



**LASARTE-ORIA Flamenko ikuskizuna.** Andaluziako dantza eta musika nagusi izango dira Zambra dantza taldea eta Malagako koadro flamenko baten eskutik. Semblante Andaluz elkarteak antolatutako ekintza da. Manuel Lekuona kultur etxea, larunbata, 18:00etan.

## OSTIRALA 2

### LASARTE-ORIA Dj saioa

Rug a Dug Corner saioa egingo da: Oportotik Alpha Pup, Fidel, Jah Inity Sound eta Bit Sound. Mikro irekia ere izango dira. Totx taberna, gauean.

### URNIETA Beldur etxea

10 eta 16 urte bitarteko gaztetxoentzat beldur etxea antolatu du Urnieta gaztelekuak. Izena egunean bertan eman behar da 16:30ean. Lekaio Kultur Etxea, 17:00etatik 19:30era.

## LARUNBATA 3

### LASARTE-ORIA Flamenkoa

Zambra dantza taldeak eta Malagako

kuadro flamenkoak emanaldia eskainiko dute. Manuel Lekuona, 18:00etan.

### ASTIGARRAGA Kontzertua

Convivium singers abesbatzaren emanaldia izango da. Tolosako 50. abesbatzen lehiaketan parte hartuko du. Andre Mari eliza, 19:30ean.

### DONOSTIA Egunen batean antzerkia

Behibis Antzerki Taldeak Egunen batean antzezlanak eskainiko du. Sarrera doakoa da, jarleku guztiak bete arte. Gonbidapenak egun berean banatuko dira 16:30etik aurrera. Okendo kultur etxea, 17:00etan.

### DONOSTIA Erritu ikuskizuna

Kukai Dantza taldeak Sharon Fridma koreografoarekin elkarlanean

sortutako Erritu ikuskizuna eskainiko du larunbata eta igandean. Sarrera, 10, 18 eta 24 euro.

Victoria Eugenia antzokia, larunbatean 20:00etan eta igandean, 19:00etan.

### DONOSTIA Erakusketa

David Ajaren lanak ikusgai Superheroiak erakusketan. Marvel Comics-en hainbat superheroiaren azal eta istoriotxoak sortu ditu. Abenduaren 18an itxiko ditu ateak. Igande eta jai egunetan itxita. Okendo kultur etxea, egun osoa.

## ASTEARTEA 6

### URNIETA Ikuskizuna

Bizimiñak antzerkia, artea eta musika uztartzen dituen ikuskizuna eskainiko da. Lekaio kultur etxea, 19:00etan.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Los Increíbles 2**  
Igandea: 17:00.

#### La sociedad

**literaria y el pastel de piel de patatas**  
Igandea: 19:30.

#### El Reino

Ostirala 9: 22:00.  
Igandea 11: 19:30.

#### El reino de los elfos

Igandea 11: 17:00.

### Itsasoari buruzko zikloa

#### Elkarrekin: together

Osteguna 15: 20:00.

#### Sitio distinto

Ostirala 16: 20:00.

#### Arte al agua

Osteguna 15: 20:00.

#### Ana y Bruno

Igandea 18: 17:00.

#### La buena esposa

Igandea 18: 19:30.

#### Itsasontziak erreskatean

Igandea 25: 17:00.

#### Viaje al cuarto

### de una madre

Igandea 25: 19:30.

### Black is beltza

Ostirala 30: 22:00.  
Abenduak 2: 19:30.

### ANDOAIN

#### BASTERO

#### Golazen denboraldi berriko aurrestreinaldia

Larunbata: 17:00.  
Igandea: 17:00.

#### Ha nacido una estrella

Larunbata:

### 19:30, 22:00.

Igandea: 19:30

Astelehena:

19:30, 22:00.

### URNIETA

#### SAROB

#### El hijo de BigFoot

Igandea: 17:00.

### USURBIL

#### SUTEGI

#### Orm elurretako erresuman

Igandea: 17:00.

### ASTIGARRAGA Erakusketa

Sagardoa eta emakumea erakusketak ateak irekiko ditu. Sagardogintzari lotutako ondarean emakumezkoaren papera eta sagardogintzaren transmisioan eta kontserbazioan egin duen ekarpena ezagutzera ematen da erakusketan. Sagardoetxea, asteartetik larunbatera, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era; igande eta jaiegunetan, 11:00etatik 13:30era.

### DONOSTIA Bisita gidatua

Arrate Perezek San Telmo museoaren historia eta elizan dauden J.M. Serten mihiseei buruz mintzoko da. 55 urtetik gorako pertsonen zuzendutako bisita gidatua museoko erakusketa iraunkorrerara. Bisita gidatua doakoa da, baina izen-ematea beharrezkoa da: stm\_errereserbak@donostia.eus / 943 48 15 61. San Telmo museoa, 11:00etan.

### DONOSTIA Literatur solasaldia

Leslie Feinberg idazlearen Mari-

mutil handi baten bluesa lana aztertuko dute.

Liburutegi nagusia, 19:30ean.

## ASTEAZKENA 7

### USURBIL Ipuin kontaketa

Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa HH4-ko neska-mutilentzat.

Sutegi udal liburutegia, 18:00etan.

## OSTEGUNA 8

### ASTIGARRAGA Ipuin kontaketa

Afaltzera etorri zen arkumetxoa ipuina kontaketa du izaskun Mujikak. 3 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzendutako saioa da. Liburutegia, 18:00etan.

### DONOSTIA Hitzaldia

Luzia Alberro Goikoetxea historialari eta irakasleak Bertsolariak gipuzkoarren historiaren testigu bazterrekoak lanari buruzko hitzaldia eskainiko du. San Telmo museoa, 19:00etan.

## ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

### FUTBOLA

#### ERREGIONAL OHOREZKO MAILA

#### Bergara KE - Ostadar SKT

Larunbata. 16:30. Ipintza, Bergaran.

#### ERREGIONALEN 1. MAILA

#### Ostadar SKT - Axular KKE

Larunbata. 17:15. Michelinen.

#### JUBENILEN OHOREZKO MAILA

#### Ostadar SKT - Urki CD

Larunbata. 15:30. Michelinen.

#### JUBENILEN 1. MAILA

#### Hernani CD - Ostadar SKT

Larunbata. 12:00. Zubipe, Hernanin.

#### KADETEEN 1. MAILA

#### Ostadar SKT A - Urnieta KE A

Igandea. 10:30. Michelinen.

#### Danena KE B - Ostadar SKT B

Igandea. 10:00. Elbarrena, Zizurkilan.

#### INFANTILEN OHOREZKO MAILA

#### Ostadar SKT - Tolosa CF

Larunbata. 14:00. Michelinen.

#### INFANTIL TXIKIAK

#### Ostadar SKT - Martutene KE

Larunbata. 11:00. Michelinen.

#### INFANTILEN 1. MAILA

#### Internacional - Ostadar SKT A

Igandea. 09:00. Matigoxotegi, Donostian.

#### Ostadar SKT B - Billabona KE.

Larunbata. 12:30. Michelinen.

#### INFANTILA F-8

#### Ostadar SKT - Tolosa CF

Larunbata. 09:45. Michelinen.

### ARETO-FUTBOLA

#### NAZIONALA 3. MAILA

#### Antiguoko KE - Afantxo KE

Igandea. 12:00. Pio Baroja kirol., Donostian.

#### GIPUZKOAKO SENIORRA

#### Garoa Taberna - Trintxerpe KE

Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

#### GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA

#### Eskoriatza KE - Bar Lasarte

Larunbata. 09:30. Eskoriatza.

#### GIPUZKOAKO KADETEEN MAILA

#### Lauburu KE Ibarra 2003 - Balerdi Harategia

Larunbata. 11:20. Maialen Chourraut kirol.

### SASKIBALOA

#### EUSKADI-NAFARROA TXAPELKETA

Irene eta Judith Navarro lasarteoriarrak Gipuzkoako

### selektzioarekin lehiatuko dute kadete mailan, Hego Euskal Herriko txapelketan. Larunbatean, Arabaren aurka. Finalak, igandean.

Larunbata. 17:00. Ollite, Nafarroan.

#### SENIOR HIRUGARREN MAILA

#### BKL Senior Tercera - Ostadar SKT

Igandea. 12:30. Antzizar kirol., Beasainen.

#### KADETE ERRENDIMENDUA

#### Easo EAEC - Ostadar SKT

Larunbata. 16:00. Benta Berri kirol., Donostian.

#### KADETE PARTAIDETZA

#### Añorga Saskibaloia B - Ostadar SKT

Igandea. 12:00. Benta Berri kirol., Donostian.

### PILOTA

#### GIPUZKOAKO TXAPELKETA, 2. MAILA

#### Intza - Añorga

Ostirala. 20:00. Michelinen.

### ALEBINAK

#### Intza 2 - Zumaia 3

Larunbata. 16:00. Michelinen.

### LASTERKETA

#### SAKANAKO HERRI LASTERKETA

#### Lasarte-Oriako hainbat korrikalarik

#### Sakanako XVIII. Herri lasterketan hartuko dute parte.

Larunbata. 17:00. Olaztin.

### ERRUGBIA

#### OHOREZKO MAILA

#### Hernani CRE - Bizkaia Gernika RT

Igandea. 12:00. Landare, Hernanin.

#### OHOREZKO B MAILA

#### AVK Bera Bera - Babyauto Zarautz

Igandea. 12:00. Kote Olaizola, Donostian.

# EUSKARALDIAREN PUNTUA ZURE BALKOIAN



**Azaroaren 10ean, goizeko 10:00ak eta 13:30ak bitartean, herritar boluntarioen bisita izango duzu Euskaraldia zer den azaltzeko, eta gainera:**

- Belarriprest izan zaitezen animatzeko.
- Eta puntu bat oparituko dizugu zure balkoian jartzeko.



LASARTE-ORIA  
UDALA

## EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ azaroaren 23tik  
abenduaren 3ra

### EMAN IZENA!



[lasarte-oria.euskaraldia.eus](http://lasarte-oria.euskaraldia.eus)

